

LAGUNTZA  
DOKUMENTUA

HAUR ETA  
NERABEEN AURKAKO  
**INDARKERIAREN**  
**AURREAN**  
**JARDUTEKO**  
**PROTOKOLOA**

I KIROLAREN ETA AISIALDIAREN EREMUAN

# LAGUNTZA DOKUMENTUA

# Sarrera:

---

Nafarroako Kirolaren Institutuak, Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa betez, Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 8ko 84/2023 Ebazpenaren bidez onetsi du Nafarroako Foru Komunitateko kirol entitateetarako haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa kirolaren eta aisiaren eremuan (2023ko 67. NAO, apirilaren 4koa).

Indarkeria kirolean modu batean baino gehiagotan ager daiteke. Indarkeriaz ari garenean, ez gara soilik indarkeria fisikoaz edo sexualaz ari. Izan ere, badira indarkeriazko jokabideak maiz aski normalizatuta daudenak edo ezkutuan gelditu ohi direnak.

Dokumentu honek lagunduko die kirol entitateei haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko lege organikoaren bidez onetsitako eta nahitaez bete beharreko jarduteko protokoloa aplikatzen.

Protokoloaren helburua da gerta daitezkeen indarkeria-kasuak hautematea eta haiei aurre egitea eta, gainera, kirolean prebentzioa lantzea eta ingurune seguruak sustatzea.

Adibide eta tresna praktikoak prestatu dira, kirol entitate bakoitzak kirolean eta aisialdian, nor bere testuinguruan, haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa ezar dezan.

## Dokumentuaren aurkibidea

---

1. Kasuen astuntasuna baloratzeko tresnak
  2. Jarduteko neurriak (protokoloa aplikatzeko prozedura)
  3. Arriskuaren adierazleak
  4. Prebentzio-neurrien proposamenak
  5. Kasuen adibideak
  6. FAQ: haurtzaroan eta nerabezaroan indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloaren gaineko ohiko galderak kirolaren eta aisialdiaren eremuan.
-

# 1. Kasuen astuntasuna baloratzeko tresnak

---

Kasuak arinak, astunak edo oso astunak izanen dira, jarraian azaltzen diren irizpideetako batzuk edo guztiak betetzen diren edo ez:

- **Kasu arinak** dira aldian behin gertatzen direnak eta alderdien parte-hartzearekin eta lankidetzarekin konpon daitezkeenak. Ukitutako pertsonengan duten eragina txikia da.
- **Kasu astunak** dira denboran zehar irauten dutenak, hala nola egitura, erakunde, kultura edo pertsona aldetiko babesgabezia gertatzen denean, eta berdinen artean, helduaren eta adingabearen edo erakundearen eta adingabearen artean nagusitasun fisikoa, psikikoa edo boterezkoa gertatzen denean.
- **Kasu oso astunak** dira agintaritza eskudunari berehala salatu beharrekoak, delitua izateagatik (sexu-indarkeria, kontaktuarekin edo kontakturik gabea), LGBTIfobia, oinarri kultureko kasuak, emakumeen, desgaitasuna duten pertsonen edo babesik gabeko pertsonen kontrako indarkeria eta, orobat, indarkeria-kasu guztiak; indarkeria-kasu horietan ukitutako pertsonak jasandako inpaktua oso altua da.

## 2. Jarduteko neurriak (protokoloa aplikatzeko prozedura)

---

Protokoloan azaldutako esku-hartzeko jarduketak errazago aplikatzeko, abian jarri beharreko faseak jarraian deskribatzen dira. Halaber, gogorarazten da entitate bakoitza bere ingurunean arduratuko dela Nafarroako Kirolaren Institutuaren jarduketa-protokoloa ezartzeaz.

Babes arloko ordezkariak fase hauek aplikatu beharko ditu eta haiei jarraipena egin beharko die:

### *1. fasea: Egoera hautematea, informazioa jasotzea eta egoera baloratzea*

1. Laguntza eskatzeko inprimakia erregistratu eta betetzea.
2. Gertatutakoa inplikaturako pertsoneri komunikatzea.
3. Banan-banan bilerak egitea inplikaturako pertsonekin, informazioa biltzeko.
4. Kasuaren astuntasuna baloratzea. Egoeraren berri behar denari ematea.

## 2. fasea: Orientazio arloko jarduketa-neurriak, kasua berresten bada

Baloratu ondoren eta astuntasunaren arabera:

- a) Profesionaletara deribatzea, kasua bada, eta haiekin koordinatzea, neurriak ezartzeko.
- b) Jarduketa-neurriak hartzea entitatean:
  - Bitartekaritza, kasuaren tipologiak halakorik egiten uzten badu.
  - Prebentzio-neurriak, gatazkaren alderdi guztiei aplikatzekoak, halakorik behar bada.
  - Erreparazio-neurriak.
  - Kasuaren jarraipena artxibatzea (eskaera, ekintzak eta ondorioak).

## 3. Arriskuaren adierazleak. Indarkeria izan daitekeela uste izateko egoerak

---

Garrantzitsua da gogora ekartzea helduon ardura dela, besteak beste, indarkeria-kasuak aditzera ematea entitateari edo haurtzaroaren edo nerabezaroaren alorretan eskumena duten agintariei/erakundeei.

Babes arloko ordezkariak frogatutako adierazle eta egintzak jasoko ditu, sekula ez interpretazioak. Babesaren, arretaren eta segurtasunaren funtsezko printzipioan oinarritzen gara.

Jarraian, adibide moduan, zenbait adierazle, zenbait egoeratan presente dagoen indarkeria-arriskua baloratzeko balio dutenak eta zer indarkeria-motari dagozkion. Ez dituzte barne hartzen daudekeen indarkeria guztiak, ezta daudekeen adierazle guztiak ere.

### **Tratu txar fisikoa**

- Ageriko zantzu fisikoak izatea (ubeldurak, bihurritzeak, erredurak...), ageriko justifikaziorik gabeak.
- Minak maiz izatea, etengabe nekatuta egotea eta itxuraz hartarako justifikaziorik gabe.
- Gehiegizko entrenatzeak, iraupenean zein intentsitatean, heldutasunaren edo adinaren ikuspuntutik begiratuta.
- Higienarik eza, jantzi egokirik ez izatea unean uneko klimaren arabera.
- Substantzia estimulatzaileak edo dopatzaileak hartzea.

### ***Tratu txar emozionala***

- Taldean ez integratzea, taldekideekin harremanik ez izatea, isolamenduarekin lotutako balizko jokabideekin.
- Kirolariaren familiakoak edo legezko tutoreak entitatearen entrenamenduetara, partidetara edo elkarretaratzeetara ez agertzea edo oso gutxi joatea.
- Haur nerabea ez da etxera joaten eta instalazioetan ohi baino luzeago gelditzen da edo entrenamenduetan huts egiten du, behin eta berriz eta justifikaziorik gabe.
- Bere burua desbalorizatzen du; uste du ez duela trebetasun edo gaitasun fisiko edo mugimenduzkorik eta pertsona bezala ez duela balio.
- Erreaktibotasun-maila altua elkarrizketetan, komunikatzeko antsietatea dagoenean, eta elkarrizketa-proposamenen aurrean errefusatzeko jokabideak daudenean.

### ***Sexu-indarkeria, kontaktuarekin edo kontakturik gabe***

- Ukipen fisikoa, beharrik gabe eta testuingurutik kanpo (laztanak, ukitzeak...) entrenamenduetan edo partidetan: abusutzat har daiteke.
- Errefusatzeara edo saihestea dutxa hartzeko edo aldageletara joateko uneak, harremanetarako egoerak saihesteko.
- Irudi edo bideoez jabetu eta erabiltzea, haiek erabiltzeko, baita sexu-edukia duten elkarrizketak ere.
- Sexu-jokabide esplicitua, bere adinerako desegokiak diren jokoak egitea eta ezagutzak izatea

### ***Nork bere buruari egindako indarkeria***

- Arazoak elikadurarekin (gehiegi jatea edo apetitua galtzea).
- Autolesio fisikoak.
- Suizidioari edo suizidio-ahaleginei buruz hitz egitea.
- Nork bere buruari inposatutako gehiegizko entrenamenduak.

## **3.1 ARRISKU-EGOERAK ETA PREBENTZIO-EKINTZAK**

Jarraian, kirol entitateetan egunero gerta daitezkeen arrisku-egoerak deskribatzen dira, eta eremu edo egoera horiek ingurune seguruagoak bihurtzeko egin daitezkeen prebentzio-ekintzak.

## Helduen eta haur nerabeen arteko harremana

ARRISKU-EGOERAK	PREBENTZIO-EKINTZAK
Bilerak	Ez izan elkarrizketarik adingabeekin gunee itxietan edo bakarka.
Joan-etorriak	Ez ibili adingabeekin bakarrik ibilgailu pribatu batean.
Sare sozialak	Sare sozialak egoki erabili adingabeekin harremanetan jartzeko.
Instalazioak / Aldagelak	Errespetatu aldageletan haur nerabeak aldatzen ari diren uneak. Instalazioetako, aldageletako eta sarrera eta irteeretako eremuak berrikustea, etorkizuneko arrisku-egoerei aurre egiteko eta haiek ziurtatzeko.
Kontaktu fisikoa	Saihestu beharrezkoa ez den kontaktu fisikoa, eta ez inbaditu gorputzaren intimitatea eta intimitate psikologikoa.
Komunikazioak	Ez erabili hizkera desegokia (zakarra, sexista, ironikoa). Saihestu konnotazio edo izaera sexuala duten txantxak, iruzkinak eta jokoak.

## Helduen arteko harremanak

Uste dugu helduok erreferente izan behar dugula haur nerabeendako. Hori dela eta, garrantzitsuak dira arrisku-egoerak eta helduek entitatean duten jokabidea.

ARRISKU-EGOERAK	PREBENTZIO-EKINTZAK
Bilerak	Tratu onaren kultura sustatzea helduen artean. Bileretan hirugarren pertsona bat izateko eskatzea, bitartekari aritu dadin, beharrezkoa bada.
Sare sozialak	Entitatearen sare sozialak erabiltzea indarkeriaren prebentzioa bultzatzeko. Bideoak, ikastaroak, dokumentuak, dekalogoak...
Lehiaketak/ekitaldiak/partidak	Tratu ona bultzatzeko komunikazio-kanalak erabiltzea: megafonia, dekalogoak, manifestuak irakurtzea, bideoak partekatzea partida hasi bezain fite, posterrak.....
Kirolariek ez izatea parte hartzeko eremurik	Kirolarien artean parte hartzeko eremuak sustatzea; eremu horietan kirolariak kezkatzen dituzten gaiak landuko dira.
Komunikazioak	Kirol entitatearen prestakuntza bultzatzea indarkeriarik gabeko komunikazioaren arloan. Gai horiek lantzeko elkarrizketarako guneeak sortzea (eremu dinamizatuak, zeinetan helduek gaiari buruz mintzatuko baitira).
Beharrezkotzat jotzen diren bestelako jarduerak.	

## Haur nerabeen arteko harremanak

ARRISKU-EGOERAK	PREBENTZIO-EKINTZAK
Rolak taldean	Talde teknikoan bilerak egitea arrisku-egoerak identifikatzeko, harreman-giroa mapeatzeko eta taldeko harreman-egoerak biltzeko.
Entrenamenduak	Azpimarratu behar da entrenamenduen plangintzan sistematikoki sartu behar direla taldean kohesioa sortzen duten dinamika zehatzak. Horretarako, teknikariek prestakuntza jaso behar dute esparru honetan.
Lehiaketak/ekitaldiak/partidak	Taldearekin lan egin behar da taldeko kideen eta gainerako parte-hartzaileen artean tratua ona erdiesteko, dela aldagelan, dela geldialdietan, dela hirugarren zatietan...
Komunikazioak	Ez baimendu inongo isekarik, irainik, mespretxurik..., ezta den txikiena ere, adingabeen artean, ezta helduei zuzenduak ere.
Beharrezkotzat jotzen diren bestelako jarduerak.	





## 4. Prebentzio-neurrien proposamenak

Jarraian, prestakuntzarekin, komunikazioarekin, informazioarekin eta parte-hartzearekin zerikusia duten neurriak azaltzen dira, entitateetan haiek ezartzeko erreferentzia modura erabil daitezkeenak.

LANTZEN DIREN GAIAK	BALIZKO PREBENTZIO-NEURRIEN AZALPENA
Kontzeptuak lantzea: indarkeria, jazarpena, desgaitasuna, genero-desberdinkeria, arrazakeria, LGTBIfobia	Ziurtatu behar da ez dela txantxarik egiten testuinguruz kanpo. Indarkeriaren eta jazarpenaren kontzeptua taldekoekin lantzea. Desgaitasunarekin enpatia sentitzen den jarduerak egitea eta lantzea. Lan-eremuak generoaren, arrazakeriaren eta LGTBIfobiaren inguruan entitatean.
Prestakuntza/balioak	Taldekoekin balioen eta berdinen arteko tratua gaineko solasaldiak egitea. Entitatearen balioak gogoratzea eta sare sozialetan ikusgai jartzea.
Prebentzio arloko baliabide idatziak (jokabide-kodeak, prebentzio-gidak, federazioen protokoloak...)	Entitatearen jokabide-kodea lantzea eta sare sozialetan ikusgai jartzea. Adingabeek teknologia berrien erabilera arduratsua egiteko gidak gogoraraztea entitateko kideei, hots, kirolariei, teknikariei, zuzendaritzako kideei, familiei. Indarkeriari aurrea hartzeko protokoloa entitatean hedatzea.
Prestakuntza Euskarriak Parte-hartzea	Teknikariei taldea kudeatzeko erreferentziatzeko euskarriak ematea. Entrenatzaileari prestakuntza eta aholkua ematea adingabeekin harreman-jokabideak bideratzeko, beharrezkoa bada. Entitatean prestakuntza ematea haur nerabeak babesteko arloan eta adingabeak neurri honetan tartean sartzeko, prestakuntzak horrek balio izan dezan indarkeriazko egoerak identifikatzeko. Prestakuntza jarduerak egitea, entitateko pertsona guztiei desgaitasunaren eta laneko metodologiaren gaineko informazioa eta prestakuntza emateko. Adingabeek parte hartzeko bideak sortzea.
Salaketak jartzeko kanalak/salaketen koordinazioa	Adingabeendako salaketa-bideak ikusgai jartzea. Kanpoko erakundeekin koordinatzea kasuak bidaltzeko. Informatzea nahitaezkoa dela agintari eskudunari komunikatzea eta salatzea gertakaria oso astuna denean edo delitutzat hartzen denean. Entitateak komunikatuak egitea sexu- edo genero-orientazioaren, -adierazpenaren eta -identitatearen gaineko eskubidea eta askatasuna bultzatzeko.
Komunikazioa	Komunikazio-kanal egokiak sortzea. Tartean sartutako beste kirol entitate batzuekin harremanetan jartzea egoera zehatzak jakinarazteko, esaterako, partida batean gertatzen ari den indarkeria. Babes-ordezkeriaren, kirolarien eta entitateko egiturako langileen artean, familiak barne direla, komunikazio-plan bat sortzea.

## 5. Kasuen adibideak

Hurrengo atalean zenbait kasu aurkezten dira, entitateendako lagungarriak izan daitezkeenak neurriak planifikatzeko eta erregistroa eta monitorizazioa egiteko.

Garrantzitsua da kasuaren izaera zuzenean ez identifikatzea haren astuntasunarekin, eta azterketa egitea kasu bakoitzaren astuntasuna baloratzeko.

### **Kasuaren izaera: INDARKERIA EMOZIONALA**

#### **KASU ARINA (egoera zehatzean erabakitzeko)**

**Adibidea:** Entrenamenduetan zenbait neskak eta mutilek isekak eta mespretxuak etengabe egitea haur jakin bati.

JARDUTEKO NEURRIAK	ERAGILE ESKU-HARTZAILEAK	AZTERTU BEHARREKO ARRISKU-FAKTOREAK	PREBENTZIO-NEURRIAK	HAUTEMATE-NEURRIAK
<p>El Babes arloko ordezkariak laguntza eskatzeko inprimakia bete du.</p> <p>Babes arloko ordezkariak informazioa jaso du, alderdiekin bilerak izan du eta jarduteko neurri zuzenen gaineko txosten bat prestatu du.</p> <p>Profesionalen artean laguntza bilatu du, jarduerak sustatzeko edo harreman-giroa sortzeko taldearen/entitatearen barnean tratu ona sustatzearen.</p>	<p><u>Jarduketa fasea</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Esku hartzen duten kirolariak.</li> <li>. Babes arloko ordezkaria.</li> <li>. Entrenatzailea.</li> <li>. Familiak edo legezko tutoreak.</li> </ul> <p><u>Hautematea/Prebentzioa</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Kirol entitatea.</li> <li>. Prebentzioko profesionalak.</li> <li>. Familiak edo legezko tutoreak.</li> </ul>	<p>Komunikazioa.</p> <p>Rolak talde barnean.</p> <p>Entrenamenduak.</p> <p>Partidak.</p> <p>Sare sozialak.</p>	<p>Balioak indartzen egindako lana.</p> <p>Komunikazioaren gaineko prestakuntza.</p> <p>Parte-hartzeko eremuak sortzea.</p>	<p>Babes arloko ordezkariak eta entrenatzaileak bilerak egitea harreman-giroa ebaluatzeko.</p>

### **Kasuaren izaera: INDARKERIA FISIKOA**

#### **KASU ASTUNA EDO OSO ASTUNA (egoera zehatzean erabakitzeko)**

**Adibidea:** partida bukatu ondoren, talde bateko haur nerabe batzuk beste taldeko haur nerabe batzuen zain gelditzen dira eta borroka hasten da; zenbait haur nerabek kontusioak izan dituzte.

JARDUTEKO NEURRIAK	ERAGILE ESKU-HARTZAILEAK	AZTERTU BEHARREKO ARRISKU-FAKTOREAK	PREBENTZIO-NEURRIAK	HAUTEMATE-NEURRIAK
<p>Babes arloko ordezkariak laguntza eskatzeko inprimakia bete du.</p> <p>Kanpoko baliabide batera bideratzeko txostena (halakoa egitea egoki ote den baloratuko da, ikusitako egoeraren arabera): Gizarte-zerbitzuak, esku-hartzeko berariazko eragileak, Adingabeen Fiskaltza, segurtasun-indarrak, etab.</p> <p>Profesionalen laguntzaz baliatzea taldearen/entitatearen barnean tratu ona sustatzen duten jarduerak edo harreman-giroa sustatzeko.</p>	<p><u>Jarduketa fasea</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Kanpoko baliabidea.</li> <li>. Babes arloko ordezkaria.</li> <li>. Kirol entitatea.</li> <li>. Esku hartzen duten kirolariak.</li> <li>. Familiak edo legezko tutoreak.</li> </ul> <p><u>Hautematea/Prebentzioa</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Kirol entitatea.</li> <li>. Prebentzioko profesionalak.</li> <li>. Familiak edo legezko tutoreak.</li> </ul>	<p>Komunikazioa.</p> <p>Rolak talde barnean.</p> <p>Entrenamenduak.</p> <p>Sare sozialak.</p> <p>Partidak.</p>	<p>Lan zehatza kiroleko indarkeriaren gainean.</p> <p>Komunikazioaren gaineko prestakuntza.</p> <p>Parte-hartzeko eremuak sortzea.</p>	<p>Instalazioen arriskua aztertzea.</p> <p>Informazioa biltzeko, adingabeen parte hartzeko eremuak sustatzea.</p>

## **Kasuaren izaera: KONTAKTURIK GABEKO SEXU-INDARKERIA**

### **KASU OSO ASTUNA (egoera zehatzean erabakitzeko)**

**Adibidea:** biluzik dagoen kirolari nerabe baten argazkia erabiltzea hura kikiltzeko eta hertsatzeko.

JARDUTEKO NEURRIAK	ERAGILE ESKU-HARTZAILEAK	AZERTU BEHARREKO ARRISKU-FAKTOREAK	PREBENTZIO-NEURRIAK	HAUTEMATE-NEURRIAK
EBabes arloko ordezkariak laguntza eskatzeko inprimakia bete du. Kanpoko baliabide batera bideratzea (egokitasuna baloratuko da, ikusitako egoeraren arabera): Gizarte-zerbitzuak, esku-hartzeko berariazko eragileak, Adingabeen Fiskaltza, segurtasun-indarrak, etab. Profesionalen laguntzaz baliatzea taldearen/entitatearen barnean tratu ona sustatzen duten jarduerak edo harreman-giroa sustatzeko.	<u>Jarduketa fasea</u> <ul style="list-style-type: none"><li>. Kanpoko baliabidea.</li><li>. Babes arloko ordezkaria.</li><li>. Kirol entitatea.</li><li>. Esku hartzen duten kirolariak.</li><li>. Familiak edo legezko tutoreak.</li></ul> <u>Hautematea/Prebentzioa</u> <ul style="list-style-type: none"><li>. Kirol entitatea.</li><li>. Prebentzioko profesionalak.</li><li>. Familiak edo legezko tutoreak.</li></ul>	Aldagelak. Sare sozialak. Genero-rolak. Partidak. Entrenamenduak.	Genero-rolen gaineko lan zehatza. Sexu-jazarpenaren gaineko berariazko prestakuntza. Sare sozialak erabiltzeko prestakuntza. Parte-hartzeko eremuak sortzea.	Instalazioen arriskua aztertzea. Sare sozialen erabilera aztertzea.

### **Kasu guztietan**

- Datuen eta informazioaren konfidentzialtasuna.
- Jarduketa-neurriak aplikatzea.
- Entitateko organoari jakinaraztea.
- Kasuaren txostena idaztea.



## 6. FAQ: haurtzaroan eta nerabezaroan indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloaren gaineko ohiko galderak kirolaren eta aisialdiaren eremuan.

---

### 1. ENTITATE GISA LEGEAK ZERTARA BEHARTZEN NAU?

Legeak behartzen du jarduketa-protokoloak ezartzera adingabeekin kirol- eta aisia-jarduerak ohikotasunez egiten dituzten entitateei (48.1. a art.) eta babes arloko ordezkaria izendatzera (48.1.c) art.).

### 2. GURE ENTITATEAN BADA BALIABIDE MODURA ERABILDAITEKEEN PROTOKOLO-EREDU BAT?

Bai. Nafarroako Kirolaren Institutuak, zuzendari kudeatzailearen martxoaren 8ko 84/2023 Ebazpenaren bidez, onetsi zuen "Kirolaren eta aisiaren eremuan haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa".

II. zatian (9. orrialdean) bada protokolo-eredu bat. Entitateak bere ingurunera egokitu behar du eta haren aplikazioa errazteko alderdiak gehitu behar ditu.

### 3. BEHIN PRESTATU ONDOREN, ZER EGINEN DUT PROTOKOLOAREKIN?

Entitateko gobernu-organoek onetsi behar dute protokoloa. Entitatea eratzen duten kide guztiei aditzera eman behar zaie eta webgunean eta sare sozialetan hedatu behar da.

### 4. PROTOKOLOA EGUNERATU BEHAR DA?

Bai. Administrazio publikoak ezartzen du kirol entitateak urtero berrikusi eta onetsi behar duela eta entitatearen gobernu-organoak ontzat eman behar duela. Helburua, hauxe: aldaketaren bat egin behar den baloratzea.

### 5. NOR DA PROTOKOLOAREN ARDURADUNA ENTITATE BATEAN?

Entitateak babes arloko ordezkaria izendatuko du eta hura arduratuko da protokoloan ezarritako eginkizunak gauzatzeaz.

### 6. BABES ARLOKO ORDEZKARIA IZANIK, ZER EGIN BEHAR DUT INDARKERIA-KASU BAT GERTATZEN DENEAN?

Indarkeria-kasu bat gertatzen denean, entitatearen beraren jarduketa-protokoloan ezarritakoaren arabera jokatu behar da. Noiznahi, entitate bateko babes arloko ordezkaria harremanetan jar daiteke Nafarroako Kirol Institutuko Bitartekaritza Bulegoarekin, aholkua jasotzeko.

## **7. ZER TREBETASUN/GAITASUN IZAN BEHARKO LITUZKE BABES ARLOKO ORDEZKARI BATEK?**

Gomendatzen da babes arloko ordezkaria prestakuntza jasotzeko konpromisoa duen norbait izatea, ezaguna, irisgarria. Xedea da adingabeak harengana jotzea kezka azaltzera.

## **8. INDARKERIA-KASU BAT DAGOENEAN, NORK AHOLKATZEN DITU HAURRAK, NERABEAK ETA ENTITATEA?**

Kirolari batek edo entitateak aholkua behar badu indarkeria-kasu bat dagoenean, jo dezake:

- Entitatearen babes arloko ordezkariarengana.
- Nafarroako Kirolaren Institutuko Bitartekaritza Bulegora (kirolaren eremua).  
Tel: 848 427 845 - [mediaciondeportiva@navarra.es](mailto:mediaciondeportiva@navarra.es)
- Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendaritzara (aisiaren eremua).  
Tel: 848 423 900 - [juventud@navarra.es](mailto:juventud@navarra.es)
- Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (NABI) salaketetarako bulegora.  
Tel: 848 421 588 - [instituto.navarro.igualdad@navarra.es](mailto:instituto.navarro.igualdad@navarra.es)
- Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Kattalinguneren bulegora.  
Tel: 948 229 149 - [kattalingune@kattalingune.org](mailto:kattalingune@kattalingune.org)
- Eskubide Sozialak.  
Tel: 848 425 046 - [info.derechossociales@navarra.es](mailto:info.derechossociales@navarra.es)

Salaketarik bada:

- Adingabeendako laguntza, Foruzaingoa.  
Tel: 848 426 403 - [policiaforal@navarra.es](mailto:policiaforal@navarra.es)
- Justiziako Gizarte Zerbitzua  
Tel: 948 221 802 - [ofidel@navarra.es](mailto:ofidel@navarra.es)

## **9. ZERTAN DATZA KASUEN MONITORIZAZIOA?**

Kasuak erregistratu eta aztertzen dira (urteko memoria), datuen segurtasuna eta babesa kontuan hartuz. Entitate bakoitzak kasuak erregistratzeko tresna bat izanen du.

## **10. PROTOKOLOAREN APLIKAZIOAN, ZER EGITEN DA SEGIMENDURAKO ETA MONITORIZAZIORAKO JARDUKETETAN?**

Protokoloa aplikatzeko prozesua ebaluatzen da, eta jarduketa-protokoloko 6. puntuan ezarritako ekintzak betetzen direnez egiaztatzen da.

